


John Dagsha

~~6 weeks~~
450. Newbury St.

ETAPA 12.

SUKARRIETA - BAKIO 17,3 KM

Desnivel +686m / - 686m



GR 123®
BIZKAIKO BIRA
LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

Topogida - Topoguía







GR 123

BIZKAIKO BIRAOINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAI



“

12. ETAPA Sukarrieta-Bakio | 17,3 Km / 5 h 45' h**Desnibela-desnivel +686m / - 686m****MIDE datuak / datos MIDE**

Medio



Itinerario




Desplazamiento



Esfuerzo



Horario MIDE

12. ETAPA**1****2****2****3****5h 45'**Arrisku faktore bat
gertatzen
gertatzen
gertatzenBidexkak edo
jarran
adierazten
dutent
seinaldeakZaldibideko
ibilbaldia3 eta 6 ordu
geiditu gabeHay mas de
un factor de
riesgoSendas o
señalización
que indica la
continuidadMarcha por
caminos de
herraduraDe 3 a 6
horas de
marcha
efectiva**Ikurrak - Iconos - Icons**Zu hemen zaude
Ud, estás aquí
You are hereAutoz iristeko puntu
Acceso con vehículo
Vehicle accessBaseliza
Ermita
HermitageAlerpea
Refugio
RefugeOndare arkeologikoa
Patrimonio arqueológico
Archeology HeritageAtsedenlekua
Área recreativa
Recreational areaIkuspegi panoramikoa
Vista panorámica
Panoramic viewsIturria
Fuente
SourceHondartzza
Playa
BeachKoba
Cueva
CaveOndare monumental
Patrimonio monumental
Monumental HeritageMegalito
Megalito
Megalith**Web Euskera****Web Castellano****Track**

Hasiera”

Bizkaiko itsasertz ikusgarrian barrena jarraituko dugu oinez.
 11B etapa ez egitea hobetsi ezkerro, ibilaldia Txatxarramendi
 uhartean hasiko da. Kasu horretan, Urdalbaiko
 itsasadarraren bi ertzak lotzen dituen txalupa txiki batean
 iritsiko gara uhartera (Tlf. Mundakako Turismo Bulegoa +34
 946 177 201). Baino 11B etapa egitea erabakitzentz badugu,
 berriz, Sukarrietara hegoaldetik helduko gara, hau da,
 Gernikatik.

” Inicio

Seguimos caminando por el hermoso litoral de Bizkaia.
 Si optamos por no realizar la etapa 11B, este recorrido
 comienza en la isla de Txatxarramendi. En ese caso
 llegaremos a la isla en un pequeño bote que conecta
 las dos orillas de la ría de Urdaibai (Tlf Oficina de
 Turismo Mundaka +34 946 177 201). Pero si decidimos
 recorrer también la etapa 11B, nos acercaremos hasta
 Sukarrieta por el sur desde la localidad de Gernika.


S



GR 123®

BIZKAIKO BIRAOINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA



Txatxarramendi

”

Txatxarramendi ingurune etnografiko paregabean kokatuta dago. Bertako badia kabortaia-portu txiki gisa erabiltzen zuten erromatarrek II. mendearen. Uhartearen Txatxarramendi Hotela jartzeak eta trena udalerriraino ailegatzeko eskualdeko turismoa asko bultzatu zuten. Parean Paco Ostatua eraiki zen, duela gutxira arte turismoaren beste erreferente bat izan dena inguru hartan. Busturiako tren-geltokiaren ondoko itsaski-haztegia ere ospetsua izan zen. Itxi egin zen, baina 2002an Txatxarramendiko Itsas Gela bihurtu zuten.

Ezin dugu irla zeharkatu bere aberastasun botanikoa ikusi gabe. Gaur egun, Txatxarramendi uharteko artadia Urdaibaiko ederrenetako da, batez ere hotela egon zen bitartean egin ziren zainketengatik. Parke botaniko bat ere egokitzen, hango espezieak interpretatu eta identifikatzeko gune gisa. Bertan 25 landare-espezie ikus ditzakegu, gehienak artadi kantauriaren bereizgarriak: artea, ereinotza, gurbitza...

Txatxarramendi uharteko Zubia zeharkatu ondoren, Sukarrieta herrigunerantz joko dugu. Begien bistako arrazoia direla medio, elizatearen izena tokian zegoen harri-motarekin (edo silexarekin) lotu izan da, silexarekin, alegia: Sukarrieta, hau da, suzko harria.


Gure ibilbide balizatuak Portuondo Kanpina erditik zeharkatuko du. Gero, Bi2235 errepiidearen ertzeko oinezkoentzako pasealeku erosotik Mundakako herri ikusgarrira iritsiko gara, era errazean.

Txatxarramendi se encuentra en un entorno etnográfico privilegiado. La ensenada en la que se halla fue utilizada por los romanos, como pequeño puerto de cabotaje en el siglo II d.C. En épocas más actuales la isla acogió el Hotel Txatxarramendi, pionero del turismo en la zona y principal responsable de que el tren accediese hasta el municipio. Frente a la isla se construyó el Hostal Paco, auténtico referente del turismo en la comarca hasta tiempos recientes. También fue famoso su vivero de marisco, situado al lado de la estación del tren de Busturia. El vivero se cerró pero en el año 2002 se reconvirtió en el Aula Marina de Txatxarramendi.

No podemos cruzar la isla sin detenernos a observar su riqueza botánica. El encinar de Txatxarramendi constituye hoy en día una de las masas de este tipo más longevas de Urdaibai, debido sobre todo a los cuidados de los que disfrutó mientras existió el Hotel. También se acondicionó un parque botánico, como espacio para la interpretación e identificación de los diversos ejemplares de árboles y plantas que alberga. En él podemos observar 25 especies vegetales, la mayoría características de encinar cantábrico: encina, laurel, madroño, labioérnago...

Tras cruzar el puente de la isla de Txatxarramendi, caminaremos hacia el núcleo urbano de Pedernales. Por motivos obvios el nombre de la anteiglesia se ha solido asociar a la abundancia del tipo de roca denominado pedernal (o sílex) en el lugar. Sukarrieta, el actual nombre vasco de la localidad, es una traducción moderna de Pedernales: sukarri, literalmente piedra de fuego.

Nuestro ruta balizada nos hará cruzar el Camping Portuondo por su interior. Luego, por un cómodo paseo peatonal, junto a la carretera Bi 2235, llegaremos sin esfuerzo a la preciosa villa de Mundaka.



12. Etapa SUKARRIETA - BAKIO

R



EU

KM - 3

”

Mundaka

Mundaka bere arrantza-portuaren inguruan kokatutako herri xarmangarria da. Portua herriko bizigunea da; mundakarrak bertan elkartzen dira eta denbora pasatzen dute, ur ondoan, parkean, pilotalekuaren edo inguruko tabernetan.

Mundakaren jatorria ez da garbia. Elezahar batek dioenez, X. mendean erbesteratutako printzes bat zekarren Eskoziako barku bat porturatu zen itsasertz honetan. Bidaiai hauek iturri bat aurkitu eta uraren argitasunaz harrituta “munda aqua” deitu omen zioten latinez, euskaraz “ur garbia” litzatekeena. Kondaira horren arabera, printzesa hura Bizkaiko Jaun Zuria mitikoaren ama izan zen.

Baina zalantzak gabe, gaur egun Mundaka nazioartean ospetsua da surfa egiteko baldintza paregabeak dituelako. Herriko giroa bereziki kosmopolita bihurtzen da udazkenean, toki guztietako surflariak hurreratzen baitira herrira, mundu mailako ezkerreko olatu luzeenetakoa harrapatu guran.

Gure bideari jarraituz, herritik alde egin aurretek ikuspegi liluragarria agertuko zaigu: Santa Katalina ermita, Izaro uhartea atzean duela. Ermita polit honek kokapen estrategikoa du, bertatik kontrolatzen baitira Urdaibaioko sarrerak eta irteerak. Gaur egun ikusten dugun eraikina 1879an jaso zuten, estilo gotiko eta errenazentista nahastuta.



ES

KM - 3

Mundaka ”

Mundaka es un encantador pueblo surgido alrededor de su puerto pesquero, centro vital de la localidad. En esa zona se reúnen y pasan el tiempo sus habitantes, junto al agua, en el parque, el frontón o en los bares cercanos.

El origen de Mundaka es incierto. Una leyenda dice que en el siglo X atracó en esas costas un barco escocés, en el que venía una princesa desterrada. Estos viajeros encontraron una fuente que les llamó la atención por la claridad de su agua y la llamaron “munda aqua”, que significa en latín: “agua cristalina”. Según esta leyenda, la princesa tuvo un hijo llamado Jaun Zuria, quien se convirtió en el primer Señor de Bizkaia.

Es indudable que Mundaka es famoso internacionalmente por sus excelentes condiciones para la práctica del surf. El ambiente en la localidad es especialmente cosmopolita en otoño, cuando surfistas de todas partes se acercan a la localidad a montarse en una de las olas de izquierda más largas del mundo.

Siguiendo nuestra ruta, antes de abandonar el pueblo nos encontraremos con una preciosa panorámica: la ermita de Santa Catalina con la isla de Izaro al fondo. Esta bella ermita disfruta de una ubicación estratégica, ya que desde ella se controla las entradas y salidas del estuario. El edificio que vemos en la actualidad fue construido en 1879 en una mezcla de estilos góticoy renacentista.



KM - 4

EU

”

Izaro uhartea

Izaro uharteari dagokionez, antzinako misterioz eta istorioz betetako leku magikoa da bizkaitarrentzat. Dokumentatuta dago 1422an irla Bermeoko herriak frantziskotarrei utzi zielo, eta hauek komentu bat eraiki zutela Santa María Magdalena ermitaren ondoan.



Kondaira zahar batek dio Izaroko fraide gazteenetako bat Mundakako neska batekin zeharo maitemindu eta gauero bisitatzen zuela. Frantziskotarrak igeri egiten zuen, bere maitea ikusi ahal izateko; emakume gazteak, hora gidatzeko, argizari bat jartzen zion bere leihoan. Egun batean, neskaren senide bat harreman hartaz konturatu, eta hurrengo gauean, kriselua urruneko harkaitz batean ipini zuen, eta fraide gizagaixoa ito egin zen.

ES

La isla de Izaro

La isla de Izaro es para los habitantes de Urdaibai un lugar mágico, rodeado de misterios y de historias que se pierden en el tiempo. Lo que sí está documentado es que en el año 1422, la vecina localidad de Bermeo cedió la isla a los franciscanos y estos construyeron en ella un convento junto a la ermita de Santa María Magdalena.

La leyenda cuenta que uno de los frailes más jóvenes de Izaro se enamoró de una joven de Mundaka y la visitaba cada noche. El franciscano nadaba cada noche para ver a su amada y, para guiarlo, ella le colocaba un candil en su ventana. Un día un familiar de la chica los descubrió, y a la noche siguiente puso el candil en un acantilado muy alejado y el fraile acabó ahogándose.



EU

KM - 6

Bermeo ”

Mundaka atzean utziko dugu, ortu arteko bide estu batean barrena. Aurreraxeago, oinezkoentzako pasealekuarekin bat egingo dugu berriz ere, Bi 2235 errepidearen alboan. Bide horrek Bermeoko herriraino eramango gaitu. Bizkaiko udalerri honek nortasun eta xarma berezia du. Euskal Kostaldeko arrantza-portu garrantzitsuenetako bat izateaz gain, bertako kultura-ondare oparoa bisitatzeko aukera ere eskainiko baitigu.

Alde zaharraren erdian, Santa Eufemia eliza nabarmenzen da, XIII. mendean jaso eta XV.aren amaieran berreraiki zena. Gotikoa da, gangetako leihoa, ate eta nerbioetan ikus daitekeen bezala. Bizkaiko Jaunek eliza honetan zin egiten zituzten Foruak. Monumentu historiko-artistikoa izendatua izan zen 1995ean.

Ertzilla dorrean aurkitzen den arrantzalearen museoa ezinbestekoa da herriaren historia ulertzeko. Museo honetan historiaurretik gaur egunera arte itsasoarekin zerikusia duten arte eta aparailuak, itsasontziak eta mota guztietako tresnak ikus daitezke.

Jauregi frantses baten tankera duen Bermeoko kasinoak ere merezi du bisita bat. Severino Atxukarro arkitekoak asmatutako eraikin hau 1894an jasoarazi zuten eta 1983an sakon hondatu zen uriol ikaragarrien ondorioz. Geroztik bere lehengo itxura berreskuratu du.





Etapa 10 ONDARROA-ISPASTER

ES

KM - 6


Bermeo ”

Dejaremos Mundaka atrás, adentrándonos por una estrecha senda entre huertas. Un poco más adelante volveremos a enlazar con el paseo peatonal paralelo a la carretera Bi 2235. Dicho camino nos llevará hasta la vecina villa de Bermeo. Este municipio vizcaíno cuenta con una singular personalidad y encanto. Además de ser uno de los puertos pesqueros más importante de la Costa Vasca, también nos ofrecerá la oportunidad de visitar su rico patrimonio cultural.

En mitad de su casco antiguo, destaca la iglesia de Santa Eufemia que fue erigida probablemente en el siglo XIII y reconstruida a finales del XV. Es gótica, tal y como se puede apreciar en las ventanas, puertas y los nervios de las bóvedas. Los Señores de Bizkaia juraban los Fueros en esta iglesia, que fue declarada Monumento Histórico Artístico el año 1995.

El museo del pescador, que se alberga en la Torre Ercilla es imprescindible para comprender la historia de la localidad. En él se pueden contemplar artes y aparejos, embarcaciones y todo tipo de objetos relacionados con el mar desde la prehistoria hasta la actualidad.


El casino de Bermeo con aspecto de un palacio francés, también merece una visita. Este edificio obra del arquitecto Severino de Achúcarro, se construyó en 1894 y se derrumbó en 1983 a consecuencia de unas inundaciones.



Matxitxako lurmutterra

Bermeoko udalerritik ateratzeko, alderdi modernoa zeharkatuko dugu Arane auzotik gora. Apur-apurka, herri-gunea atzean utzi eta baserri artean ibiliko gara.

Etapa honetako kirol erronka dugu aurretik; Burgoa mendiaren (450 m) tontorrera iritsi arte, 400 metroko desnibela 4 km eskaseko bidezidor harritsueta egin beharko ditugu. Sollube menditik (685m) datorren mendilerro hau Matxitxako lurmutur ospetsuan amaitzen da. Lurmutur hau ingurune paregabean dago kokatuta. Urdaibai Biosfera Erreserbaren eta Gaztelugatxeko San Juango biotopo babestuaren artean. Bertatik kostalde osoko ikuspegi zoragarriak ditugu gure begien aurrean: Gaztelugatxeko San Joan uhartetxo famatutik Ogoño lurmuturrainokoak. Zerua garbi dagoen egunetan, ez da zaila Frantziako kostaldea eta Kantabriako itsasertza ere ikustea.



Cabo de Matxitxako

Para salir de Bermeo, cruzaremos la parte moderna del municipio por el barrio Arane. Poco a poco dejaremos atrás el núcleo urbano y caminaremos entre caseríos.

Tenemos por delante el reto deportivo del día; 400 m de desnivel en apenas 4 km de pedregosos senderos, hasta pasar junto a la cima del monte Burgoa (450m). Este cordal montañoso, que viene desde el monte Sollube (685m), finaliza en el famoso Cabo de Matxitxako. Este cabo está situado en un paraje privilegiado. Entre la Reserva de la Biosfera de Urdaibai y el Biotopo protegido de San Juan de Gaztelugatxe. Desde allí se pueden disfrutar increíbles vistas de toda la costa. Desde el islote de San Juan de Gaztelugatxe hasta el Cabo de Ogoño. Los días en los que el cielo está muy despejado, no es difícil ver las costas francesas y cántabras.



KM - 14,5

Gaztegulatxeko San Juan”

Igoerako desnibela gainditu ondoren, orain mendi-bidetik jaitsiko gara Eneperi auzoraino. Gaztelugatxeko San Juan bisitatzeko adina indar duten ibiltariertzako sarbidea.


Bermeokoa den arren, leku idiliko hau Bakio eta Bermeo arteko erdibidean dago. Itsasoaren gainean eskegita dagoen ermita honek ez du aurkezpenik behar. Azken urteetan euskal kostaldeko lekurik ezagunena bilakatu da, kamerentzat duten panoramika ederrari esker.

Kostaldeari harrizko zubi baten eta 241 mailako harmailadi baten bidez lotutako uharte horretan dago San Juan ermita. Betidanik erromesaldi gune garrantzitsua izan da, batez ere Bermeoko marinelentzat. Gaur egun ikusten dugun eliza, zoritzarrez, ez da jatorrizkoa. Gizalditan zehar suteak eta batailak izan dira eta eliza sarritan berreraiki behar izan da. Uste denez, lehen ermita IX. mendean eraiki zen, eta XII. mendean, komentu bat ere jaso zuten.

Uhartea iritsiezina denez, eraso ugari jasan ditu. Besteak beste, XVI. mendearen amaieran, Sir Francis Drake kortsario ingelesak ermita erre zuela esaten da, eta Arroxelatik etorritako higanotek ere Izaro eta Gaztelugatxe hartu zituztela ere kontatzen dute dokumentu batzuek

Baina ez da argazki eder bat bakarrik. Natura, paisaia eta aberastasun handia duenez, Gaztelugatxe Biotopo Babestu izendatu zen 1998an. Biotopo Babestuek ekosistemez arduratzea bilatzen dute, eta bere berezitasun, edertasun eta bitxitasunak nabamentzen saiatzen dira.

A



GR 123®

BIZKAIKO BIRA

OINEZ
SENDERISMOS
HIKINGO

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

KM - 14,5

San Juan de Gaztelugatxe “

Una vez superado el desnivel de subida, ahora nos tocará descender por un camino de montaña hasta el barrio Eneperi. Lugar de acceso para los caminantes que aún tengan fuerzas suficientes para visitar San Juan de Gaztelugatxe.

Aunque pertenece a Bermeo, este idílico lugar se encuentra a medio camino entre Bakio y Bermeo. Esta ermita suspendida sobre el mar no necesita presentación. Los últimos años se ha convertido en uno de los mayores atractivos turísticos de la costa vasca, gracias a su irresistible panorámica para las cámaras.

Esta isla unida a la costa a través de un puente de piedra y una escalinata de 241 peldaños alberga la ermita de San Juan, que desde antaño ha sido un punto importante de peregrinación, sobre todo para los marineros bermeanos. La iglesia que vemos hoy en día desgraciadamente no es la original. A lo largo de los siglos ha habido incendios y batallas y ha tenido que ser reconstruida en múltiples ocasiones. Se cree que la primera ermita fue erigida en el siglo IX y en el XII también se construyó un convento.

Dada la inaccesibilidad de la isla, hay constancia histórica de que multitud de ocasiones se han acometido asaltos. Entre otros, a finales del siglo XVI se dice que el corsario inglés Sir Francis Drake quemó la ermita y herejes hugonotes, procedentes de La Rochelle tomaron Izaro y Gaztelugatxe robando todo lo que hallaron allí.

Pero no solo es una foto preciosa. Debido tanto a su elevada riqueza natural y paisajística como a su fragilidad, Gaztelugatxe fue declarado Biotopo Protegido en 1998. Un Biotopo Protegido busca la protección de los ecosistemas y destaca por su singularidad, espectacular belleza y rareza. Son espacios de tamaño reducido donde el uso público está regulado.



GR 123®

BIZKAIKO BIRA

OINEZ
SENDERISMO
HIKING

LA VUELTA A BIZKAIA - THE TOUR OF BIZKAIA

KM - 17,3

Bakio”

EU

Kostaldeko etapa hau amaitzeko, Bakiora jaistea besterik ez zaigu geratzen. Bakioko kostaldea hondartza, itsaslabar, kala eta pasealekuz inguratutako leku ederra da. Herri turistiko hau aspalditik lotuta egon da gure txakolinarekin.

Txakolina, bertako mahats zuriekin egindako ardo tradizionala da. Ardo honen estilo klasikoa garratza izan ohi da, kolore hori zurbilekoa, alkohol ertain-baxukoa eta fruta zitrikoaren, belar freskoaren eta lore zurien aromaz jantzia. Bakio biztanle bakotzeko txakolin-upategi gehien dituen Bizkaiko udalerrietako bat da.

ES

Para culminar esta etapa costera solo nos quedará bajar cómodamente hasta Bakio. La zona marítima de esta localidad es un atractivo entorno, rodeado de playa, acantilados, calas y paseos. Este pueblo eminentemente turístico está ligado históricamente con nuestro querido txakoli.

El txakoli es el vino tradicional del País Vasco, elaborado con uvas locales, casi el 98% de ellas blancas. El estilo clásico de este vino es un blanco con acidez alta, de color amarillo pálido, alcohol medio-bajo y aromas de fruta cítrica, hierba fresca y flores blancas. Bakio sigue siendo uno de los municipios bizkainos con mayor número de bodegas de txakoli por habitante.





Bultzatzailea: Bizkaiko Foru Aldundia

Promotor: Diputación Foral de Bizkaia

Tfn: 94 4067700



Bizkaiko
Mendizale
Federazioa

